



OHIKO GALDERAK

DOKTORE EZ DIREN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO PROGRAMAKO LAGUNTZEN ESKABIDEAK AURKEZTEA, 2026-2027 IKASTURTEA

Edukia

1.	Norengana jo behar dut nire zalantzak argitzeko?	2
2.	Interneteko zein nabigatzaile erabili behar dut eskabidea osatzeko?	2
3.	Zein erabiltzaile eta pasahitz erabili behar ditut?	2
4.	Nola funtzionatzen du BakQak?	2
5.	Nola lor dezaket BakQ?	3
6.	BakQ eska dezaket beste baten izenean?	3
7.	BakQ dut, baina, ahaztu egin ditut pasahitza, koordinatuak	3
8.	BakQ edo beste ziurtagiri elektronikoren bat badut, non eta nola egin behar dut eskaera?.....	3
9.	Eskaera online betetzen ari naizela, arazo teknikoak baditut. Norengana jo dezaket?	4
10.	Akats hau azaltzen bazait aplikazioan: V90.comun.error.generico.....	5
11.	Nola ziurtatu dezaket eskabidea behar bezala amaitu dudala?	5
12.	Zer dokumentu atxiki behar ditut diru-laguntzaren eskaeran?	5
	Eskaera BERRIA	5
	1go berriztapena	7
	2. berriztapena	7
	3. berriztapena	8
13.	Non aurki ditzaket erabili beharreko txantiloiak?	8
14.	Zein epe daukat eskabidea aurkezteko?	8
15.	Aurkeztutako dokumentazioaren zuzenketak	8
16.	Elkarrizketa pertsonalak.....	8
17.	Esleipenak.....	9

1. Norengana jo behar dut nire zalantzak argitzeko?

- Web orrian [doktoretza aurreko programari](#) buruzko informazio zehatz eta osoa aurki dezakezu; baita zure eskabidea osatzeko sarbidea, [aplikaziorako sarbidea](#) aukeran sakatuta.
- Herritarrentzako arreta-zerbitzu orokorra, Zuzenean Zerbitzua, da zure erreferentzia (telefonoa: 012/945-018000).
- Halaber, kontsultak, posta elektronikoa erabilia, helbide honetara bidal ditzakezu: zientzia.ikerкета@euskadi.eus

2. Interneteko zein nabigatzaile erabili behar dut eskabidea osatzeko?

Aplikazioa, Windowsen edozein bertsiotan, Mozilla Firefox nabigatzailearekin erabiltzeko diseinatu eta optimizatuta dago; doan jaitsi eta instala dezakezu ordenagailuan. Google Chrome edo Edge ere erabil ditzakezu. Aplikazioa ez da bateragarria Internet Explorer-ekin. Telefonoa erabilia izapiderik ez egitea gomendatzen dizugu, arazoak sortzen baititu.

3. Zein erabiltzaile eta pasahitz erabili behar ditut?

Eskabidea, osorik, era elektronikoa egin behar da; hortaz, horretarako nahitaezkoa da ziurtagiri elektronikoa balioduna izatea. Esteka honetan, [identifikazio elektronikorako bitarteko baliodunei buruzko argibideak](#) kontsulta ditzakezu.

Oraindik ziurtagiririk ez baduzu, [BakQ](#) eskura dezazula gomendatzen dizugu. Elektronikoki erraz identifikatzeko aukera eta administrazioarekin elektronikoki aritzeko aukera eskaintzen du. Ziurtagiri horrekin ez da euskarri berezirik behar.

Haatik, BakQ ez den ziurtagiri bat erabiltzekotan zure ordenagailuan [idazkidesktop](#) instalatu beharko duzu. Gainera, kontuan izan idazki horrek ez duela onartzen gailu mugikorren NFC bidezko sinadurarik (irradi-frekuentzia bidezko identifikazio-teknologia, NANaren azken bertsioetan eskuragarri dagoena). Kasu horietan, txartel-irakurgailu baten bidez konektatu beharko da.

4. Nola funtzionatzen du BakQak?

BakQ identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoa da, identifikatzaile batek eta bi autentifikazio-faktorek osatzen dutena:

- Erabiltzailea (erabiltzailearen NAN/AIZ)
- Pasahitza (8 karaktere)
- Koordinatu-joko bat, 16 posizioduna, 2021eko otsailaren 2a baino lehen eskatutakoa bada; edo SMS bidez zure telefono mugikorrera bidalitako kode bat.

Ordenagailuetan, mugikorretan nahiz tabletetan erabil daiteke, edozein sistema eragiletan, eta ezer instalatzeko beharrik gabe. Gainera, BakQ bidez Bak ere erabil daiteke; baina, Bak erabilia ezin daiteke eskabiderik sinatu, horretarako BakQ erabili behar da. [Izenperen](#) webgunean identifikazio-bitarteko horren gaineko informazioa kontsulta dezakezu.

5. Nola lor dezaket BakQ?

Izenperen herritartasun-ziurtagiri bat edo NAN elektronikoa bat baduzu, online eska dezakezu. Bestela, aurrez aurreko arretarako 600 puntu baino gehiagotara joan zaitezke BakQ eskatzera.

Leku hauetara jo dezakezu BakQ eskatzera:

- Unibertsitateetara (bertako ikasleentzat soilik)
- KZ guneetara: Euskadiko udalerrri askotan daude KZ guneak. Esteka honetan, zure etxetik hurbilen dagoen KZ gunea bila dezakezu: <https://www.kzgunea.eus/es/centros>.
- Gizarte-etxe eta beste erakunde batzuetara: udal, foru-aldundi, gizarte-etxe eta osasun-zentro askotan eskura dezakezu. Kontsultatu hemen [BakQ eskatzeko-puntuak](#)

6. BakQ eska dezaket beste baten izenean?

Ez, beste batek ezin du inola ere izapidetu BakQ beste norbaiten izenean, ezta legezko ordezkaritza, tutoretza edo antzeko kasuak medio. Kasu horietan, ordezkariak bere BakQ eskatu edo erabili beharko du, eta ordezkaritza bere izenean gauzatu beharko du dagokion zerbitzuaren aurrean.

7. BakQ dut, baina, ahaztu egin ditut pasahitza, koordinatuak ...

BakQ-arekin lotutako kudeaketa guztiak kudeaketa-tresnen ataritik egin daitezke: <https://servicios.izenpe.com/jbbak/>

8. BakQ edo beste ziurtagiri elektronikoren bat badut, non eta nola egin behar dut eskaera?

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren web-orrian sartu, lan-arloak-en barruan, Ikerketa Ibilbidean / Doktoratu-aurreko Programan. Sakatu "**Eskabidea egiteko esteka**" eta identifikatu zure ziurtagiri elektronikoaekin.

Helbide honen bidez ere sar zaitezke:

<https://www2.hezkuntza.net/e02a010PolCieUniWar/mantenimientosJSP/y44Login.do?idioma=eu>


Haziera

eu | es

Hemen zaude: [Hasiera](#)

Ziurtagiri digitala




Erabiltzailearen identifikazioa



[Onartu](#)

- Onartutako ziurtagirien zerrenda ikusi
- Beharkizun teknikoak
- B@kq sinadurari buruz.

Gomendatutako nabigatzaile

Optimizatuta   Beste erabilgarriak 

Y44 - Ikerketa

Hortik aurrera, urrats hauek egin behar dituzu:

- ✓ Eskaera berri bat sortu.
- ✓ Bete ezkerreko menuko erlaitz guztiak. Erlaitzak bete ahala, honako hauek aktibatuko dira.
- ✓ Erantsi zure espedienteari eskabide-inprimakian zehaztutako nahitaezko dokumentu guztiak.
- ✓ Eskabidea elektronikoki sinatu zure ziurtagiri digitalarekin.
- ✓ Eskabidearen aurkezpen-data eta erregistro-zenbakia dituen egiaztageria jaitsi.
- ✓ Eskaera «amaitu gabeko zirriborro» egoeran badago, ez dago behar bezala aurkeztuta eta ez du baliorik; nahiz eta datuak osatuta egon.

9. Eskaera online betetzen ari naizela, arazo teknikoak baditut. Norengana jo dezaket?

- Lehenik eta behin, Firefox Mozilla nabigatzailea erabil dezazula gomendatzen dizugu, aplikazioak arazoak sor baititzake beste nabigatzaile batzuekin.
- Arazoa ez bada hori, saiatu izapidea beste une batean egiten, noizbehinka, aplikazioa blokeatu egin baitaiteke.
- Halaber, Zuzenean Zerbitzura dei dezakezu (012/945 01 80 00). Arazoa ezin badute konpondu, zure deia Zientzia Politikako Zuzendaritzara bideratuko da.
- Sinadura elektronikoarekin arazoak badituzu, jar zaitetz harremanetan erabiltzaileen arretarako zentroarekin, 945 016 290/900 840 123 telefonoen bidez edo helbide honetara mezu elektroniko bat bidalita: cau-izenpe@izenpe.eus
- Gainera, mezu elektroniko bat ere bidal dezakezu zientzia.ikerketa@euskadi.eus helbidera; arazoa zein den zehatz-mehatz azaldu eta errorearen pantaila-argazki bat erantsi beharko duzu. Zure NANA eta izen-abizenak ere adierazi beharko dituzu.

10. Akats hau azaltzen bazait aplikazioan: V90.comun.error.generico



Akats hori gertatzen da estandarrak ez diren karaktereak daudelako. Baliteke sartutako testua beste leku batetik kopiatu izana, adibidez Wordetik, edo ez-ohiko karaktereak egotea (zeinuak & % \$, azentuak).

Testu-koadroan zuzenean idatzita, beste leku batetik itsatsi gabe, akats hori saihestu daiteke.

11. Nola ziurtatu dezaket eskabidea behar bezala amaitu dudala?

- Aplikazioak, amaitu aurretik, sinadura elektronikoa eskatuko dizu, eta erregistratu ondoren, erregistro-data eta -zenbakia agertuko dira.
- Eskaera behar bezala amaituta dagoenean, "Aztertzen" egoeran ageriko da. "Zirriborroa aurkeztu gabe" ageri bada, amaitu gabe dago.
- Eskaeraren sarrera-erregistroaren egiaztatzea jaitsi ahalko duzu; gerora edozein motatako erreklamazioak aurkezteko ezinbestekoa da.
- Online inprimakiaren kopia bat ere jaitsi ahalko duzu, bete dituzun datu guztiekin.

12. Zer dokumentu atxiki behar ditut diru-laguntzaren eskaeran?

Eskaera BERRIA

Laguntza BERRI bat eskatuz gero, dokumentazio hau aurkeztu behar duzu:

- EAEn erroldatuta egotearen ziurtagiria, laguntza-eskabidea aurkezteko irekitako epean emana. Baldintza da gutxienez 2026-01-01etik EAEn erroldatuta egotea (mod.A) edo 2024/01/01etik (mod. B-I). Horretarako, kontsulta egingo zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen erregistroei, administrazio publikoen datu-bitartekaritzarako plataformei edo ziurtagiria ematen duen organismoari. Kontsulta hori kasu guztietan egingo da, salbu eta eskatzailearen oposizioa jaso bada. Aurkakotasuna agertuz gero, nahitaez aurkeztu beharko da kontsultaren xede den dokumentua. Aplikazio informatikoak ez badu dagokion ziurtagiria kargatzen, eskatzaileak egiaztatzea kargatu beharko du aplikazioan.
- Unibertsitate-titulua edo haren eskubideak ordaindu izanaren egiaztatzea. Baldintza da gradua 2022eko ekainean edo geroago gaindituta egotea (salbu deialdia arautzen duen aginduan aipatutako kasuak medio; 25.5 oinarria). Egiaztatzea egiteko, kontsulta egingo zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroei, administrazio publikoen datu-bitartekaritzako plataformari edo ziurtagiria ematen duen erakundeari. Kontsulta hori kasu guztietan egingo da, salbu eta eskatzaileak aurkakotasuna agertzen badu. Aurka agertuz gero, horrekin batera nahitaez aurkeztu beharko da kontsultatzea baimentzen ez den dokumentua. Halaber, aplikazio informatikoak ez badu dagokion titulua kargatzen, eskatzaileak ziurtagiria igo beharko du aplikaziora.

- Ikasketa-espeditarearen ziurtagiria. Baldintza da, gutxienez, batez besteko nota hau izatea arlo bakoitzerako:
10, 11, 12 arloak – Batez besteko nota: 6
1, 2, 3, 8, 9, 13, 15, 16 arloak (+ espezifikoa) – Batez besteko nota: 6,5
4., 5., 6., 7., 14., 17., 18. arloak – Batez besteko nota: 7
- Saileko zuzendariak sinatutako onarpen-idazkia (unibertsitateen kasuan soilik). Sail horrek bat etorri behar du proiektuaren zuzendariarenarekin edo zuzendarikidearenarekin.
- Ezarpen-zentroaren konpromisoa kontratua formalizatzeko, zentroaren legezko ordezkariak sinatuta. Zentroa UPV/EHU bada, ez da konpromiso hori aurkeztu behar, ofizioz biltzen baita.
- Doktorego-programak baldintzatu gabeko matrikula edo onarpena (arduradunak sinatuta). Aurkezteko azken eguna 2026/11/13a izango da.
- Doktorego Programari buruzko memoria. Dagoen txantiloia erabili behar da, gehienez 3 orrialde.
- Ikerketa-taldeari buruzko memoria. Dagoen txantiloia erabili behar da, gehienez 5 orrialde.
- Memoria zientifiko-teknikoa, zuzendariak eta zuzendarikideak sinatuta, halakorik balego. Dagoen txantiloia erabili behar da, gehienez. 5 orrialde.
- Laguntzaren lehen 3 urteetan, 4 hilabetetik 6 hilabete artera, atzerrian egin beharreko ikerketa-egonaldiaaren plangintza; berariaz adierazita lankidetzara hori egingo den zentroaren eta zentro horretako ikerketa-taldearen garrantzia. Dagoen txantiloia erabili behar da, gehienez orrialde 1.
- Eskatzailearen CVa. Dagoen txantiloia erabili behar da.
- Eskatzailearen CVan alegatutako merezimendu akademiko eta zientifikoen egiaztagiriak.
- Zuzendariaren CVa, zuzendariak sinatua. OSO GARRANTZITSUA: jardueraren azken 6 urteak, soilik, jaso behar dira eta meritu bakoitzaren urtea zehaztu behar da.
- Zuzendarikidearen CVa, halakorik balego, hark sinatuta. OSO GARRANTZITSUA: jardueraren azken 6 urteak soilik jaso behar dira eta meritu bakoitzaren urtea zehaztu.
- Masterraren espediente akademikoa, kalifikazioak eta lorpen-datak. Aurkezteko azken eguna 2026/10/30 izango da.

Hala badagokio, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoa egiaztatzeko duen dokumentazioa.
- % 33tik gorako desgaitasun-maila egiaztatzeko dokumentazioa (Aurkeztuz gero, tituluaren data 2020ko ekaina edo beranduagokoa izan daiteke).
- Enbaxadako erregistro-ziurtagiria / Beste erkidego bateko errolda: (atzerrian bizi izanaren kasuan) absentzia-aldi osoko beste autonomia-erkidegoko bateko errolda agiria edo enbaxadako erregistroan egon izanaren ziurtagiria; kanpoan egindako ikasketen matrikula edo egitate hori frogatzeko beste edozein agiri ofizialekin batera zein, aurrez, ohiko erroldaren tokia EAE izan dela frogatzeko errolda agiria.
- Europar Batasunetik kanpokoak direnentzako bizileku-baimena.
- Ikasketak atzerrian egin badira, ziurtagiri ofizial akademikoa eta horren zinpeko itzulpena

aurkeztuko dira, betiere EAEko bi hizkuntza koofizialetako batean edo ingelesez ez badago. Kasu guztietan, ziurtagirian edo harekin batera aurkezten den beste dokumentu batean adierazi beharko da zeintzuk diren dagokion ebaluazio-sistemaren barruko gehieneko eta gutxieneko kalifikazioak, nahiz gainditzeko behar den gutxieneko kalifikazioa. Gainera, MECDren «batez besteko notaren baliokidetasun-adierazpena» edo ANECAren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko du, Espainiako ebaluazio-sistemaren barruan espediente akademikoaren batez besteko nota zein den adierazita. Unibertsitate-graduak titulazio bat baino gehiago izanez gero, espediente akademikoa kalkulatzeko eta titulazioa lortzeko data baloratzeko, hautatutako doktorego-programarekin lotura handiena duena hartuko da kontuan. Gainerako titulazioak kontuan hartu ahaliko dira curriculum vitaeak baloratzeko.

- Medikuntzako (BAME) edo Farmaziako (BAFE) espezialitateko titulu ofiziala, Biologia (BABE), Kimika (BAKE) edo Psikologiako (BAPE) espezialitateko ziurtagiri ofiziala, hala badagokio. (Aurkeztuz gero, tituluaren data 2018ko ekaina edo beranduagokoa izan daiteke).
- 2020ko ekainetik 2022ko ekainera bitarte 3 urtetik beherako adingabeak, gutxienez, 3 hilabetez zaindu izana justifikatzen duen dokumentazioa. (Aurkeztuz gero, tituluaren data 2021eko ekaina edo beranduagokoa izan daiteke).
- B eta I modalitateetarako soilik, badin badagokio, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin (EUS) ezarritako dokumentu ofizial edo hitzarmena, hautatutako doktorego-programarako lankidetzak preseski jasotzen duena.

1. berriztapena

Laguntza LEHENENGO ALDIZ BERRITZEA eskatuz gero, dokumentazio hau aurkeztu behar duzu:

- A eta B modalitateak: konpromiso-dokumentua. Dokumentu hau lehenengo berritzean bakarrik aurkeztu behar da; alderdi bakoitzak izango dituen betebeharrak eta dedikazioak jasotzen ditu. Doktorego-ikastaroaren hasieran, onuradunak sinatzen du doktorego-eskolarekin. UPV/EHU bada, dokumentu hori GAUREn dago. Ikerketa-proiektuaren zuzendarikideetako bat ez bada ezarpen-zentrokoa, ez da beharrezkoa hark sinatzea.
I. modalitatea: ikerketa-proiektuaren zuzendariak sinatutako aldeko txostena.
- Egindako jardueren memoria. Azken urtean egindako jarduerekin bete behar da txantiloia, gehienez orrialde 1.
- Ezarpen-zentroaren konpromisoa kontratua 12 hilabete luzatzeko, zentroaren legezko ordezkariak sinatuta. Zentroa UPV/EHU bada, ez da konpromiso hori aurkeztu behar, ofizioz biltzen baita.

2. berriztapena

- A eta B modalitateak: azken ebaluazio positiboaren akta (azken urteko ikasturtekoa). Akta hori doktorego-programaren arduradunek sinatu behar dute (Batzorde Akademikoa).
I. modalitatea: ikerketa-proiektuaren zuzendariak sinatutako aldeko txostena.
- Egindako jardueren memoria. Azken urtean egindako jarduerekin bete behar da txantiloia, gehienez orrialde 1.
- Ezarpen-zentroaren konpromisoa kontratua 12 hilabete luzatzeko, zentroaren legezko ordezkariak sinatuta. Zentroa UPV/EHU bada, ez da konpromiso hori aurkeztu behar, ofizioz biltzen baita.

3. berriztapena

- A eta B modalitateak: doktorego-programako batzorde akademikoaren baimena doktorego-ikasketak luzatzeko.
I. modalitatea: ikerketa-proiektuaren zuzendariak sinatutako aldeko txostena.
- Egindako jardueren memoria. Azken urtean egindako jarduerekin bete behar da txantiloia, gehienez orrialde 1.
- Doktorego-tesiaren defentsaren plangintza. Tesiaren defentsa-dataren aurreikuspena adierazi behar da. Formatu libre, txantiloirik gabea, eta proiektuaren zuzendariak/ek sinatua.
- Ezarpen-zentroaren konpromisoa kontratua formalizatzeko, zentroaren legezko ordezkariak sinatuta. Zentroa UPV/EHU bada, ez da konpromiso hori aurkeztu behar, ofizioz biltzen baita.
- A eta B modalitateak: EGONLABUR laguntzaren onuradun izan ez direnek, atzerriak egindako egonaldiaren ziurtagiria. Eskaera egiteko orduan egonaldia amaitu gabe baldin badago, egonaldia hasi izanaren ziurtagiria edo, horren faltan egonaldiaren plangintza.

13. Non aurki ditzaket erabili beharreko txantiloiak?

Eskaera aplikazioan altan eman ondoren sar daiteke txantiloietara, dokumentazioa aurkeztean. Txantiloia behar bada, dokumentua aurkeztu beharreko tokiaren ondoan txantiloia egongo da.

14. Zein epe daukat eskabidea aurkezteko?

Eskabide berriak eta berritzeak aurkezteko epea, 2026eko ekainaren 19an irekiko da, 00:00etan (Agindua EHAA argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera) eta uztailaren 20an itxiko da, 23:59etan.

15. Aurkeztutako dokumentazioaren zuzenketak

Eskabidea behar bezala beteta ez badago, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean eskabideko edo eskatutako dokumentuekin lotutako akatsak zuzentzeko; epe hori luzaezina izango da. Interesdunak, zuzenketa eskaeran, aurkeztutako dokumentazio aurkezten ez badu edo akatsa zuzentzen ez badu, eskaerarekin aurrera egin nahi ez duela ulertuko da.

Zuzentzeko errekerimendua, zuzendu beharreko eskabideen zerrenda, egoitza elektronikoaren [iragarki-taulan](#) argitaratuta jakinaraziko da. Halaber, jakinarazpen elektroniko bat bidaliko zaizu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» atalera: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>, ziurtagiri elektronikoa erabilia sartu beharko zara bertara.

16. Elkarriketa pertsonalak

Eskabideak zuzentzeko epea igaro eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeak hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen hasierako

ebazpena emango du. Ebazpen horretan elkarrizketa pertsonalak noiz egingo diren adieraziko da; elkarrizketa horiek arlo bakoitzeko aholku-batzorde espezifikoak gidatu eta baloratuko ditu. Ebazpen hori egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuta jakinaraziko da (<https://www.euskadi.eus/iragarki-aula-elektronikoa/>). Halaber, jakinarazpen elektronikoko bat bidaliko zaizu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>, ziurtagiri elektronikoa erabilia sartu beharko zara bertara.

17. Esleipenak

Emandako laguntzen ebazpena egoitza elektronikokoaren iragarki-taulan argitaratuta jakinaraziko da (<https://www.euskadi.eus/iragarki-aula-elektronikoa/>). Halaber, jakinarazpen elektronikoko bat bidaliko zaizu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>, ziurtagiri elektronikoa erabilia sartu beharko zara bertara.